

11-24/QSR-00002. Gora jotzeko errekurtsua, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko zortzi gelazain-lanpostu, funtzionario-araubidekoak eta D mailakoak –horietako bi, euskarako B2 hizkuntza-eskakizunarekin–, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdiko oposizioaldiko probaren aurkakoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

GORA JOTZEKO ERREKURTSOA, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko zortzi gelazain-lanpostu, funtzionario-araubidekoak eta D mailakoak –horietako bi, euskarako B2 hizkuntza-eskakizunarekin–, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdiko oposizioaldiko probaren aurkakoa.

CSIF sindikatuaren izenean, Javier Tarazona Lizarralde jaunak alegazioak aurkeztu ditu Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko zortzi gelazain-lanpostu, funtzionario-araubidekoak eta D mailakoak –horietako bi, euskarako B2 hizkuntza-eskakizunarekin–, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdiko oposizioaldiko probako behin-behineko emaitzen aurka, eta gora jotzeko errekurtsua aurkeztu du 2024ko azaroaren 9an egin zen oposizioaldiko probaren horren aurka.

Aurkezturiko dokumentazioa ikusita, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikularekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 118. eta 45. artikuluetan ezarritakoaren

arabera, interesdun guztiei jakinarazten zaie alegazioak aurkeztu ahal izanen dituztela iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita gehienez ere hamar egun balioduneko epean. Alegazioak Nafarroako Parlamentuaren egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen eskabidearen bidez aurkeztu behar dira (<https://parlamentodenavarra.es>); hain zuzen ere, Administrazio-izapideak / Langileria-deialdietako eskabidea atalean.

Gora jotzeko errekurtsu horren kopia lortzeko, interesdunek modu telematikoan eska dezakete errekurtsua bidal dakien. Eskaria Nafarroako Parlamentuaren egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen eskabidearen bidez egin behar da (<https://parlamentodenavarra.es>); hain zuzen ere, Administrazio-izapideak / Langileria-deialdietako eskabidea atalean.

2. Agintzea erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Parlamentuaren webgunean argitaratu dadin.

Iruñean, 2024ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias